a) Lan taldearen buru, obrako begirale eta arduradun orokor izango den norbait egotea. Igeltserotzan edo hargintzan aditua izan behar da, eta gaitasun tekniko eta prestakuntza egiaztatuak izan behar ditu.

b) Arkitekto tekniko edo aparejadore batek lanak teknikaren aldetik ikuskatzea. Hark izango du Historia eta Arkitektura Ondare Zerbitzuak emandako eraberritze irizpideak aplikatzeko ardura.

c) Obra aseguraturik egotea. Aseguru horrek auzolanean ari diren langileek izan ditzaketen arriskuei eta hirugarrenenganako erantzukizun zibilari erantzungo die.

12.2.- Baldintza horiek bete direla frogatzeko, ondorengo datuak aurkeztu behar dira:

a) Espezialista arduradunaren izen-abizenak, helbidea eta telefonoa.

b) Espezialista horrek egindako eraberritze eta birgaitze obren curriculuma.

c) Obretako ikuskatzaile den arkitekto teknikoaren edo aparejadorearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa.

d) Goragoko 12.1.c) idatz zatian agindutako obrako aseguru polizaren kopia.

12.3. Prozedura hori erabiltzeko baimena duten obrak justifikatzeko, obrak ikuskatzeko ardura duen teknikariak egindako ziurtagiria aurkeztu beharko da, erakundeak izandako gastuen (materialak, teknikarien ordainsariak, obrako arduraduna, baliabide osagarriak, etab.) ordainagiriekin batera. Egindako lanak balioztatzeko, merkatuan unean dauden batez besteko prezioak hartuko dira kontuan.

Hamahirugarrena.- Aldaketak.

Diru laguntza emateko ebazpena aldatu egingo da bi egoera hauetan: a) Diru laguntzak onartzeko kontuan hartu diren baldintzetakoren bat aldatzen denean. b) Laguntza hauekin batera, Espainiako edo nazioarteko beste erakunde publiko nahiz pribaturen batek emandako diru laguntzak edo laguntzak jasotzen direnean.

Hamalaugarrena.- Arau-hausteak eta zigorrak.

Arabako diru laguntzei eta transferentziei buruzko Foru Arauan xedatutakoa bete beharko da halakoetan.

Hamabosgarrena.- Hauen ordez aplikatzekoak.

Oinarri hauetan arautu gabeko kasuetan, Arabako diru laguntzei eta transferentziei buruzko Foru Arauan xedatutakoa bete beharko da.

a) Existencia al frente del equipo de trabajo en funciones de monitor y encargado general de obra, de un especialista en albañilería y/o cantería de acreditada capacidad técnica y formación.

b) Asunción de la inspección técnica de los trabajos por un arquitecto técnico o aparejador que se responsabilice de la aplicación de los criterios de restauración emanados por el Servicio de Patrimonio Histórico-Arquitectónico.

c) Existencia de un seguro de obra que cubra los posibles riesgos del personal adscrito a la vereda y de responsabilidad civil respecto a terceros.

12.2.- La acreditación de los citados conceptos deberá realizarse aportando los siguientes datos:

a) Nombre, dirección y teléfono de localización del especialista encargado.

b) Curriculum de obras de restauración/rehabilitación realizadas por el citado especialista.

c) Nombre, dirección y teléfono de localización del arquitecto técnico o aparejador inspector de las obras.

d) Copia de la póliza de seguro de obra exigido en el apartado 12.1.c).

12.3. La justificación de las obras autorizadas a ser realizadas por este procedimiento, se hará mediante la presentación de la correspondiente certificación efectuada por el técnico responsable de la inspección de los trabajos, acompañada de las facturas abonadas por la Entidad de los gastos habidos (materiales, honorarios técnicos, encargado de obra, medios auxiliares, etc.). La valoración de los trabajos realizados se ponderará de acuerdo a los precios medios de mercado vigentes.

Decimotercera.- Modificaciones.

Toda alteración en las condiciones que se tengan en cuenta para la concesión de la subvención y, en su caso, la obtención concurrente de subvenciones o ayudas por cualquier Entidad Pública o privada, nacional o internacional, dará lugar a la modificación de la resolución de concesión.

Decimocuarta.- Infracciones y sanciones.

Se regirán por lo dispuesto en la Normativa Foral de Subvenciones y Transferencias del Territorio Histórico de Álava.

Decimoquinta.- Aplicación supletoria.

En lo no previsto en estas Bases se estará a lo dispuesto en la Normativa de Subvenciones y Transferencias del Territorio Histórico de Álava.

*Foru Arauak*

## OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**1.802**

**156/2002 FORU AGINDUA, Ogasun Finantza eta Aurrekontu Saileko Diputatuaren martxoaren 14koa. Honen bidez, "Elkarte barruko eragiketak biltzen dituen aitorpena" izeneko 349 eredua onartzen da, bai eta euskarri fisikoak nahiz logikoak barneko orriak zuzenean ordenagailuz irakurtzeko moduko euskarriez ordezkatzeko.**

1999ko urriaren 6ko 1.210 Foru Aginduaren bidez onartu ziren 349 ereduko diseinu fisiko eta logikoak. Diseinu horietara egokitu behar dira ordenagailuz zuzenean irakur daitezkeen euskarriak. 1999ko foru arau hori onartu zen, oro har, eredu hori diru bakarrera egokitzeko. Izan ere, 1999ko urtarrilaren 1ean diru bakarra erabiltzeko igaroaldia hasi zen.

Era berean, 2001eko urriaren 18ko 673 Foru Aginduak paperezko 349 eredua onartu zuen, hots, Europako diru bakarrera egokitutako eredua. 2002 urtean erabili behar zen lehenengoz, abenduaren 17ko 46/1998 Legeko 12. artikuluan zehazten den igaroaldia amaitu eta gero. Igaroaldia 2001eko abenduaren 31n amaitu zen.

Une honetan, elkarte barruko eragiketak biltzen dituen aitorpen eredu honen zuzenean ordenagailuz irakur daitezkeen euskarrien baldintza eta diseinuak parekatu nahi ditugu, hain zuzen, gainerako zerga administrazioetan informazio zerga honetarako ezarrita dituztenekin. Izan ere, zerga gaietan garrantzia duten datuak errazago trukatzea eta zergadunek zerga betebeharrak errazago bete ahal izatea lortu nahi dugu.

*Ordenes Forales*

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**1.802**

**ORDEN FORAL 156/2002 del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, de 14 de marzo, por la que se aprueba el modelo 349, de declaración recapitulativa de operaciones intracomunitarias, así como los diseños físicos y lógicos para la sustitución de sus hojas interiores por soportes directamente legibles por ordenador.**

Mediante la Orden Foral 1.210 de 6 de octubre de 1999 se aprobaron los diseños físicos y lógicos a los que debían ajustarse los soportes directamente legibles por ordenador del modelo 349. La razón fundamental de la aprobación de la citada Orden Foral de 1999 fue la necesidad de adecuar el modelo mencionado a la adopción de la moneda única a partir del 1 de enero de 1999, fecha ésta de inicio del período transitorio en la utilización del euro.

Asimismo, la Orden Foral 673 de 18 de octubre de 2001 aprobó el modelo 349 en papel, adaptado a la moneda única europea, cuya primera utilización debía realizarse en el año 2002, una vez finalizado el período transitorio a que se refiere el artículo 12 de la Ley 46/1998 de 17 de diciembre, período que concluyó el 31 de diciembre de 2001.

En el momento presente, nos planteamos la necesidad de equiparar las condiciones y diseños de los soportes directamente legibles por ordenador de este modelo de declaración recapitulativa de operaciones intracomunitarias, a los establecidos para esta declaración informativa en las demás administraciones tributarias con la finalidad de facilitar el intercambio de datos con trascendencia tributaria y el cumplimiento de las obligaciones fiscales por parte de los contribuyentes.

Bestalde, foru agindu honen bidez onartzen den eredua 2002ko lehenbiziko hiruhilekoari dagokion aitorpena egiteko erabili beharko da lehenengoz.

Horregatik guztiagatik, eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Arautegiko (apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuak onartua) lehenengo paragrafoko 1 idatz zatiko 80. artikuluan xedatzen den baimenaz baliatuz,

XEDATU DUT:

Lehenengoa.- 349 eredua onartzea.

Bat.- "Elkarte barruko eragiketak biltzen dituen aitorpena" 349 eredua onartzen da, foru agindu honetako I. eranskinean azaltzen dena. Ereduak bi ale ditu: bata Administrazioarentzakoa eta bestea subjektu pasiboarentzakoa da, eta laburpen orria eta barneko orriak ditu.

Bi.- Baliozkoak izango dira halaber, Arabako Foru Aldundiak egin eta zergadunen eskura jarritako Laguntzeko Programa Informatikoa erabilita zergadunek egindako aitorpenak. Modu horretan egindako aitorpenak inprimatu diren orrietan aurkeztu beharko dira, foru agindu honetako bosgarren idatz zatian zehaztutako tokietan.

Aitorpen horiek inprimatuta dituen orriak inprimaki ofizialaren baliotasun bera izango du.

Arabako Foru Aldundiak garatutako Laguntzeko Informatika Programa erabilita aitorpen honetan inprimatutako datuak gailenduko dira, haien gainean eskuz egin daitezkeen zuzenketen edo aldaketen aldean. Beraz, zuzenketa edo aldaketok ez dute eraginik izango Zerga Administrazioan.

Bigarrena.- Zuzenean ordenagailuz irakur daitekeen euskarria onartzea.

Bat.- Foru agindu honen II. eranskinean azaltzen diren euskarri fisikoak nahiz logikoak onartzen dira. Horiei egokitu behar zaizkie 349 ereduaren barne orrien ordez, aurkezten diren ordenagailuz zuzenean irakur daitezkeen euskarriak.

Bi.- Ordenagailuz zuzenean irakur daitezkeen euskarrian aurkeztu beharko dira, nahitaez, 25 erregistro-eragile baino gehiago dituzten aitorpenak.

Bestelako kasuetan, aukerakoa izango da ordenagailuz zuzenean irakur daitekeen euskarrian aurkeztea.

Hiru.- Ordenagailuz zuzenean irakur daitezkeen euskarrian aurkezten diren elkarte barruko eragiketak biltzen dituzten aitorpenak banaka edo taldeka aurkeztuko dira, hurrenez hurren, dagokion artxiboak subjektu pasibo aitorle bakar baten datuak edo zenbaitenak dituen kontuan izanda.

Edonola ere, aurkezpen kolektiboan sartutako aitorpenek zergaldi berekoak izan beharko dute.

Lau.- Ez da beharrezkoa izango aldez aurretik eskatzea ordenagailuz zuzenean irakur daitekeen euskarrian elkarte barruko eragiketak biltzen dituzten aitorpenak aurkezterakoan, edozein delarik ere aurkezteko era, banakakoa nahiz taldekakoa.

Hirugarrena.- Eragiketak biltzen dituen aitorpena aurkeztera behartuta dauden subjektu pasiboak.

Elkarte barruko eragiketak biltzen dituen aitorpena aurkeztu beharko dute, foru agindu honetan xedatutakoari jarraikiz, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek, betiere, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Arautegiko (apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuak onartua) 79. artikuluan zehaztutako eragiketak egin badituzte.

Laugarrena.- Eragiketak biltzen dituen aitorpenaren edukia.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Arautegiko 79. eta 80. artikuluetan zehaztutakoaren arabera, eragiketak biltzen dituen aitorpenean honako eragiketak azaldu beharko dira:

1.- Elkarte barruko beste estatu batera zuzendutako ondasun emateak, Zergatik salbuetsiak, 12/1993 Foru Dekretu Arautzaileko (Balio Erantsiaren gaineko Zerga arautzen duena, urtarrilaren 19koa. Hemendik aurrera, Araua izango da) 25. artikuluko bat, bi eta hiru idatz zatietan zehaztutakoaren arabera.

Eragiketa horien artean sartuko dira Zergaren Arauko 9. artikuluko 3. zenbakian jasotako ondasun transferentziak.

Aitzitik, salbuetsita geratuko dira ondoko eragiketak:

Por otro lado, debe significarse que el modelo que se aprueba en la presente Orden Foral deberá utilizarse por primera vez para efectuar la declaración correspondiente al primer trimestre de 2002.

Por todo ello y haciendo uso de la autorización que se contiene en el artículo 80, apartado 1, párrafo primero del Reglamento de Impuesto sobre el Valor Añadido aprobado por el Decreto Foral 124/1993 de 27 de abril,

DISPONGO:

Primero.- Aprobación del modelo 349.

Uno.- Se aprueba el modelo 349 "Declaración recapitulativa de operaciones intracomunitarias" que figura en el anexo I de la presente Orden Foral. El modelo consta de dos ejemplares: uno para la Administración y otro para el sujeto pasivo, y se compone de una hoja resumen así como de hojas interiores.

Dos.- Serán igualmente válidas las declaraciones confeccionadas por los contribuyentes utilizando el Programa Informático de Ayuda elaborado por la Diputación Foral de Álava que se ponga a disposición de los contribuyentes. Las declaraciones confeccionadas utilizando este procedimiento deberán presentarse en el papel en el que se impriman y en los lugares a que se refiere el apartado quinto de esta Orden Foral.

El papel en que se impriman estas declaraciones tendrá la misma validez que el impreso oficial.

Los datos impresos en esta declaración mediante la utilización del Programa Informático de Ayuda desarrollado por la Hacienda Foral de Álava prevalecerán sobre las alteraciones o correcciones manuales que pudieran producirse sobre los mismos, por lo que éstas no producirán efectos ante la Administración Tributaria.

Segundo.- Aprobación del soporte directamente legible por ordenador.

Uno.- Se aprueban los diseños físicos y lógicos que figuran en el anexo II de la presente Orden Foral, a los que deberán ajustarse los soportes directamente legibles por ordenador que se presenten en lugar de las hojas interiores del modelo 349.

Dos.- Será obligatoria la presentación en soporte directamente legible por ordenador de aquellas declaraciones que contengan más de 25 registros de operadores.

En los demás casos, la presentación en soporte directamente legible por ordenador será opcional.

Tres.- Las declaraciones recapitulativas de operaciones intracomunitarias en soporte directamente legible por ordenador podrán presentarse de forma individual o de forma colectiva, según que el archivo correspondiente contenga los datos de un solo sujeto pasivo declarante, en el primer caso, o de varios, en el segundo.

En todo caso, las declaraciones que se incluyan en la presentación colectiva deberán corresponder al mismo período impositivo.

Cuatro.- No será necesario efectuar petición previa alguna para realizar la presentación de la declaración recapitulativa de operaciones intracomunitarias en soporte directamente legible por ordenador, ya sea de forma individual o colectiva.

Tercero.- Sujetos pasivos obligados a la presentación de la declaración recapitulativa.

Estarán obligados a presentar la declaración recapitulativa de operaciones intracomunitarias, de acuerdo con lo previsto en esta Orden Foral, los sujetos pasivos del Impuesto sobre el Valor añadido que hayan realizado las operaciones previstas en el artículo 79 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido aprobado por Decreto Foral 124/1993 de 27 de abril.

Cuarto.- Contenido de la declaración recapitulativa.

En los términos previstos en los artículos 79 y 80 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido, en la declaración recapitulativa se consignarán las siguientes operaciones:

1º.- Las entregas de bienes destinadas a otro Estado miembro, exentas del Impuesto en virtud de lo dispuesto en el artículo 25, apartados uno, dos y tres del Decreto Foral Normativo 12/1993 de 19 de enero regulador del Impuesto sobre el Valor Añadido –en adelante- Norma.

Se incluirán entre estas operaciones las transferencias de bienes comprendidas en el artículo 9, número 3º de la Norma del Impuesto.

Por el contrario, quedarán excluidas las siguientes operaciones:

a) Zergaren Arauko 5. artikuluko bat idatz zatiko e) paragrafoan zehaztutako pertsonek noizbehinka egiten dituzten garraiobide berrien emateak.

b) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek egiten dituztenak, Europar Batasuneko kide den beste edozein estatutan zerga horren ondoriotarako identifikazio zenbakirik esleituta ez duten hartzaileentzat.

2.- Zergari atxikitako ondasunen elkartearen barruko eskuratzeak, betiere, Zergaren ondoriotarako, Zerga aplikatzeko eremuan identifikatutako pertsona edota erakundeek egindakoak badira.

Eragiketa horien artean sartuko dira Zergaren Arauko 16. artikuluko 2. idatz zatian jasotako EBko beste estatu batetik egindako ondasun transferentziak.

3.- Espainiako Administrazioak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako, esleitutako identifikazio zenbakia erabiltzen duten enpresaburu eta profesionalek, EBko beste estatu batzuetan, egindako ondasun eskuratzeen ondoko emateak, Zergaren Arauko 26. artikuluko hiru idatz zatian xedatutako baldintzetan.

4.- Aurreko epealdietako aitorpenetan egindako zuzenketak, aurreko zenbakietan zehaztutako eragiketei dagozkienak, Zergaren Arautegiko 80.2 artikuluan zehaztutako baldintzetan.

Bosgarrena.- 349 eredua aurkezteko lekua.

Elkarte barruko eragiketak biltzen dituen aitorpena, 349 eredua, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko bulegoan aurkez daiteke zuzenean; bestela, bertara bidal daiteke posta ziurtatuz. Aitorpenlikidazioek, nahitaez, itsatsita eraman beharko dituzte identifikazio etiketak. Etiketa horiek Arabako Foru Aldundiaren Ogasun Zuzendaritzaren Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzuan eskura daitezke.

Seigarrena.- Eragiketak biltzen dituzten aitorpenak aurkezteko epea.

Elkarte barruko eragiketak biltzen dituen aitorpenaren 349 eredua, bai inprimakian aurkeztuta bai zuzenean ordenagailuz irakur daitekeen euskarrian aurkeztuta, dagokion hiruhilekoaren hurrengo hileko lehenengo hogeita bost egun naturalaren barruan aurkeztu beharko da, urteko azken hiruhilekoari dagokiona izan ezik, urtarrilaren lehenengo hogeita hamar egun naturalen barruan aurkeztu beharko baita.

Hala ere, Zerga Erantsiaren gaineko Zergaren Arautegiko 81. artikuluko 3. idatz zatian zehaztutako bi baldintzak betetzen dituzten subjektu pasiboek, urte naturalari dagokion epealdiari buruzko eragiketak biltzen dituen aitorpena aurkeztu ahal izango dute hurrengo urtarrilaren lehenengo hogeita hamar egun naturaletan.

Zazpigarrena.- 349 ereduko zuzenean ordenagailuz irakur daitezkeen euskarrien identifikazioa eta aurkezteko modua.

Bat.- Aitorpena zuzenean ordenagailuz irakurtzeko euskarrian, banaka aurkezten bada, aitortzaileak honako dokumentuak aurkeztu beharko ditu:

1.- 349 ereduaren laburpen orriaren bi aleak, Administrazioari eta subjektu pasiboari dagozkionak. Horietan Arabako Foru Ogasunak ematen duen identifikazio txartela erantsi beharko da dagokion lekuan. Era berean, ale horiek behar bezala sinatuta egon behar dute, eta dagokien espazioetan, sinatzen duenaren identitatea eta zehaztutako laburpen orrian eskatzen diren gainerako datuak beteta.

Aitorpena jaso behar duen bulegoak zigilua jarri eta gero, aitortzaileak 349 ereduaren laburpen orri horietako bat hartuko du beretzat, subjektu pasiboarentzakoa, eta hori izango da aitorpena egin duela frogatzeko ziurtagiria.

2.- Zuzenean ordenagailuz irakurtzeko euskarriak txartel bat izan beharko du kanpoaldean, eta bertan, ondoren azaltzen diren aurkezlearen datu hauek izan behar ditu, nahitaez, hurrenkera honetan:

a) Ekitaldia eta epealdia:

b) Aitorpen eredua: 349

c) Aitortzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ).

d) Deklaratzailearen izen-abizenak, sozietate izena.

e) Aitortzailearen helbidea, udalerria eta posta kodea.

f) Harremanetarako pertsonaren izen-abizenak.

a) Las entregas de medios de transporte nuevos realizadas a título ocasional por las personas comprendidas en el artículo 5, apartado uno, párrafo e) de la Norma del Impuesto.

b) Las realizadas por sujetos pasivos del Impuesto sobre el Valor Añadido para destinatarios que no tengan atribuido un número de identificación a efectos del citado tributo en cualquier otro Estado miembro de la Comunidad Europea.

2º.- Las adquisiciones intracomunitarias de bienes sujetas al Impuesto realizadas por personas o entidades identificadas a efectos del mismo en el territorio de aplicación del tributo.

Se incluirán entre estas operaciones las transferencias de bienes desde otro Estado miembro a que se refiere el artículo 16, apartado 2º, de la Norma del Impuesto.

3º.- Las entregas subsiguientes a adquisiciones intracomunitarias de bienes que realicen en otros Estados miembros, en las condiciones previstas en el artículo 26, apartado tres, de la Norma del Impuesto, los empresarios y profesionales que utilicen un número de identificación a efectos del Impuesto sobre el Valor Añadido atribuido por la Administración española.

4º.- Las rectificaciones correspondientes a las operaciones mencionadas en los números precedentes que se hayan consignado en declaraciones relativas a períodos anteriores, en los términos previstos en el artículo 80.2 del Reglamento del Impuesto.

Quinto.- Lugar de presentación del modelo 349.

La declaración recapitulativa de operaciones intracomunitarias, modelo 349 se presentará bien directamente en las oficinas del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, o bien a través de correo certificado dirigido a la mencionada oficina, llevando obligatoriamente adheridas las etiquetas identificativas que facilita el Servicio de Relación con los Contribuyentes de la Dirección de Hacienda de la Diputación Foral de Álava.

Sexto.- Plazo de presentación de las declaraciones recapitulativas.

El modelo 349 de declaración recapitulativa de operaciones intracomunitarias se presentará, tanto si se opta por su presentación en impreso como si se efectúa mediante soporte directamente legible por ordenador, en el plazo de los veinticinco primeros días naturales del mes siguiente al correspondiente período trimestral, excepto el del último trimestre del año, que deberá presentarse durante los treinta primeros días naturales del mes de enero.

No obstante podrán presentar declaración recapitulativa referida al período correspondiente al año natural durante los treinta primeros días naturales del mes de enero siguiente, aquellos sujetos pasivos en los que concurran las dos circunstancias a que se refiere el apartado 3 del artículo 81 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Séptimo.- Identificación de los soportes directamente legibles por ordenador del modelo 349 y forma de presentación de los mismos.

Uno.- Tratándose de presentación individual en soporte directamente legible por ordenador, el declarante presentará los siguientes documentos:

1.- Los dos ejemplares para la Administración y para el sujeto pasivo, de la hoja resumen del modelo 349, en cada uno de los cuales deberá adherirse, en el espacio reservado al efecto, la etiqueta identificativa que suministra la Hacienda Foral de Álava. Asimismo dichos ejemplares deberán estar debidamente firmados, indicando en los espacios correspondientes la identidad del firmante, así como los restantes datos que en la citada hoja resumen se solicitan.

Una vez sellados por la oficina receptora, el declarante retirará el “ejemplar para el sujeto pasivo” de la hoja resumen del modelo 349 presentado, que servirá como justificante de la entrega.

2.- El soporte directamente legible por ordenador deberá tener una etiqueta adherida en el exterior, en la que consten los datos que se especifican a continuación y, necesariamente por el mismo orden:

a) Ejercicio y período.

b) Modelo de declaración: 349

c) Número de Identificación Fiscal (NIF) del declarante.

d) Apellidos y nombre, razón social del declarante.

e) Domicilio, municipio y código postal del declarante.

f) Apellidos y nombre de la persona con quién relacionarse.

g) Pertsona horren telefonoa eta luzapena.

h) Guztizko erregistro kopurua.

i) 3 1/2”-ko disketeetako euskarriaren dentsitatea: 720 KB edo 1.44 MB.

Datu horiek agerrarazteko, nahikoa da datu bakoitzari aurrean bere letra jartzea, aurreko zerrendaren arabera dagokiona, hain zuzen. Baldin eta fitxategiak zuzenean ordenagailuz irakur daitekeen euskarri bat baino gehiago badu, bakoitzak bere etiketa izan beharko du, hurrenkeran zenbatua: 1/n, 2/n eta abar, non “n” euskarrien kopuru guztia baiten.

Bigarren ataleko etiketan eta hurrengo ataletako etiketetan nahikoa da aurreko a), b), c) eta d) letretan adierazitako datuak idaztea.

Bi.- Aurkezpen kolektiboa zuzenean ordenagailuz irakurtzeko euskarrian aurkezten bada, aurkezten duen pertsonak edo erakundeak honako dokumentuak aurkeztu beharko ditu:

1.- 349 ereduko laburpen orriaren bi aleak, Administrazioari dagokiona eta subjektu pasiboari dagokiona. Horietan agertu beharko dira aurkezle den pertsonaren edo erakundearen identifikazio datuak, aitortzaile diren subjektu pasiboen guztizko kopuruari dagozkionak eta aurkezpen kolektiboaren gai diren aitorpenetan, elkarte barruko eskuratzaile edo hornitzaile gisa dauden pertsona edo erakundeen guztizko kopurua. Era berean, laburpen orrian azaltzen diren datuak bete beharko dira, ekitaldiari, epealdiari eta aurkezpen motari dagozkionak.

Laburpen orri horren ale bakoitzak dagokion tokian bere txartela izan beharko du itsatsita, aurkezpena egiten duen pertsonak edo erakundeak identifikatzeko Arabako Foru Ogasunak eskainitakoa.

Aitorpena jaso behar duen bulegoak zigilua jarri ondoren, aurkezleak laburpen orri horietako bat hartuko du beretzat, interesatuarentzako alea, eta hori izango da aitorpena egin duenaren ziurtagiria.

2.- 349 ereduaren laburpen orriaren bi aleak, Administrazioarentzakoa eta subjektu pasiboarentzakoa, aurkezpen kolektiboan azaltzen diren subjektu pasibo aitortzaile guztiei dagozkienak, behar bezala sinatu eta beteta.

Ale bakoitzak dagokion tokian bere txartela izan beharko du itsatsita, aitorpena egiten duen pertsonak edo erakundeak identifikatzeko Arabako Foru Ogasunak eskainitakoa.

Aitorpena jaso behar duen bulegoan zigilua jarri ondoren, aurkezleak subjektu pasibo aitortzaileei dagozkien subjektu pasiboentzako laburpen orriak beretzat hartuko ditu. Dena den, aurkezpena egin ondoren ere erretira ditzake aurkezleak atal zigilatuak, baina aurkeztutako laburpen orrien kopuruak hala eskatzen badu, eta txosten bilketa ahalik eta azkarren egiteagatik. Horren berri emango zaio aurkezleari, bere garaian.

3.- Zuzenean ordenagailuz irakurtzeko euskarriak txartel bat izan beharko du kanpoaldean, eta bertan, ondoren azaltzen diren aurkezlearen datu hauek izan beharko ditu, nahitaez, hurrenkera honetan:

a) Ekitaldia eta epealdia.

b) Aitorpen eredua: 349.

c) Aurkezlearen identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ).

d) Aurkezlearen izen-abizenak edo sozietatete izena.

e) Aurkezlearen helbidea, udalerria eta posta kodea.

f) Harremanetarako pertsonaren izen-abizenak.

g) Pertsona horren telefonoa eta luzapena.

h) Guztizko erregistro kopurua.

i) 3 1/2”-ko disketeetako euskarriaren dentsitatea: 720 KB edo 1.44 MB.

j) Aurkeztutako subjektu pasibo aitortzaileen guztizko kopurua.

k) Zerrendan dauden pertsona eta erakundeen erregistroen guztizko kopurua.

Datu horiek agerrarazteko, nahikoa da datu bakoitzari aurrean bere letra jartzea, aurreko zerrendaren arabera dagokiona, hain zuzen.

Baldin eta aurkezpenak zuzenean ordenagailuz irakur daitekeen euskarri bat baino gehiago badu, bakoitzak bere txartela izan beharko du, hurrenkeran zenbatua: 1/n, 2/n eta abar, non “n” euskarrien kopuru guztia baiten. Bigarren ataleko eta hurrengo ataletako etiketetan nahikoa da aurreko a), b), c) eta d) letretan adierazitako datuak idaztea.

g) Teléfono y extensión de dicha persona.

h) Número total de registros.

i) Densidad del soporte en disquetes de 3 1/2”: 720 KB ó 1.44 MB.

Para hacer constar los referidos datos, bastará consignar cada uno de ellos precedido de la letra que le corresponda según la relación anterior. En el supuesto de que el archivo conste de más de un soporte directamente legible por ordenador, todos llevarán su etiqueta numerada secuencialmente: 1/n, 2/n y así sucesivamente hasta n/n, siendo “n” el número total de soportes.

En la etiqueta del segundo y sucesivos volúmenes sólo será necesario consignar los datos indicados en las letras a), b), c) y d) anteriores.

Dos.- Tratándose de presentación colectiva en soporte directamente legible por ordenador, la persona o entidad presentadora entregará los siguientes documentos:

1.- Los dos ejemplares, para la Administración y para el sujeto pasivo, de la hoja-resumen del modelo 349 en los que habrán hecho constar los datos de identificación de la persona o entidad que actúe como presentadora, los relativos al número total de sujetos pasivos declarantes y el número total de personas o entidades relacionadas como adquirentes o proveedores intracomunitarios en el conjunto de declaraciones objeto de la presentación colectiva. Asimismo, se cumplimentarán los datos relativos al ejercicio, período y tipo de presentación que figuran en la hoja-resumen.

Cada uno de los ejemplares de la mencionada hoja-resumen deberá llevar adherida en el espacio correspondiente la etiqueta identificativa de la persona o entidad presentadora suministrada por la Hacienda Foral de Álava.

Una vez sellados por la oficina receptora, el presentador retirará el “ejemplar para el interesado” de la hoja resumen, que servirá como justificante de la entrega.

2.- Los dos ejemplares para la Administración y para el sujeto pasivo, de las hojas resumen del modelo 349, correspondientes a todos y cada uno de los sujetos pasivos declarantes incluidos en la presentación colectiva, debidamente firmados y cumplimentados.

Cada uno de los ejemplares deberá llevar adherida la etiqueta identificativa de la persona o entidad declarante suministrada por la Hacienda Foral de Álava.

Una vez sellados por la oficina receptora, el presentador retirará los ejemplares para el sujeto pasivo de las hojas-resumen correspondientes a los sujetos pasivos declarantes. No obstante, si el número de hojas-resumen presentadas así lo aconseja y con el objeto de agilizar la recogida de documentos, la retirada por el presentador de los ejemplares sellados podrá realizarse con posterioridad a la presentación, lo que le será oportunamente comunicado.

3.- El soporte directamente legible por ordenador deberá tener una etiqueta adherida en el exterior, en la que se hagan constar los datos del presentador que se especifican a continuación y, necesariamente, por el mismo orden.

a) Ejercicio y período.

b) Modelo de declaración: 349.

c) Número de identificación fiscal (NIF) del presentador.

d) Apellidos y nombre o razón social del presentador.

e) Domicilio, municipio y código postal del presentador.

f) Apellidos y nombre de la persona con la que relacionarse.

g) Teléfono y extensión de dicha persona.

h) Número total de registros.

i) Densidad del soporte en disquetes de 3 1/2”: 720 KB o 1.44 MB.

j) Número total de sujetos pasivos declarantes presentados.

k) Número total de registros de personas y entidades relacionadas.

Para hacer constar los referidos datos bastará consignar cada uno de ellos precedido de la letra que le corresponda según la relación anterior.

En caso de que la presentación conste de más de un soporte directamente legible por ordenador, todos llevarán su etiqueta numerada secuencialmente: 1/n, 2/n, etc., y así sucesivamente hasta n/n, siendo “n” el número total de soportes. En la etiqueta del segundo y sucesivos volúmenes sólo será necesario consignar los datos indicados en las letras a), b), c) y d) anteriores.

Hiru.- Ordenagailuz irakur daitezkeen euskarriak jasotzen ditugunean, behin-behinekotzat jasoko ditugu, dagozkien administrazio jardueren baitan.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Foru agindu hau indarrean sartzen denetik aurrera, indargabetuta geratuko dira hemen ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak, eta, bereziki, ondoko foru agindu hauek: apirilaren 1eko 559/1993 Foru Agindua; uztailaren 16ko 1.208/1993 Foru Agindua; urriaren 9ko 1.247/1996 Foru Agindua; urriaren 6ko 1.210/1999 Foru Agindua; eta azkenik, urriaren 18ko 673/2001 Foru Agindua.

Azken xedapen bakarra. Foru agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu eta ondorengo hurrengo egunean jarriko da indarrean. Lehen aldiz erabili beharko da 2002ko lehenengo hiruhilekoari dagozkion eragiketak biltzen dituzten aitorpenekin.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko martxoaren 14a.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Foru Diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

Tres.- todas las recepciones de soportes legibles por ordenador serán provisionales, a resultas de las actuaciones administrativas correspondientes.

Disposición derogatoria única. Desde la entrada en vigor de la presente Orden Foral quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo dispuesto en la misma y en particular las siguientes Órdenes Forales: la Orden Foral 559/1993 de 1 de abril, la Orden Foral 1.208/1993 de 16 de julio, la Orden Foral 1.247/1996 de 9 de octubre, la Orden Foral 1.210/1999 de 6 de octubre y por último la Orden Foral 673/2001 de 18 de octubre.

Disposición final única. La presente Orden Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava y deberá utilizarse por primera vez en relación con las declaraciones recapitulativas correspondientes al primer trimestre del año 2002.

Vitoria-Gasteiz, a 14 de marzo de 2002.– El Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Alava

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila — Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

# ELKARTEBARRUKO ERAGIKETAK BILTZEN DITUEN AITORPENA
# *DECLARACION RECAPITULATIVA DE OPERACIONES INTRACOMUNITARIAS*

BEZaren Arautegia, apirilaren 27ko 124/1993 FDaren bidez onartua, 78.-81. art. (ALHAOaren 55. alea, 93-5-21 ekoa)

Art. 78 a 81 del Reglamento del IVA aprobado por D.F. 124/1993, de 27 de abril (B.O.T.H.A. n.º 55, de 21-5-93)

**349**

## 1 IDENTIFIKAZIOA / *IDENTIFICACION*

Identifikazio etiketa ipintzeko gunea
*Espacio reservado para la etiqueta identificativa*

## 2 EKITALDIA, EPEALDIA ETA AURKEZPEN MOTA / *EJERCICIO, PERÍODO Y TIPO DE PRESENTACIÓN*

EKITALDIA / *EJERCICIO:* ..........................

EPEALDIA / *PERIODO:* ..............................

AURKEZPENA:
*PRESENTACION EN:*

Inprimakiz:
*Impreso:* ..........

Euskarriz / *Soporte*
- Banaka / *Individual* ..........
- Taldeka / *Colectivo* ......
  - Aurkezlea / *Presentador*
  - Aitortzailea / *Declarante*

## 3 AITORPEN OSAGARRIA EDO ORDEZKOA / *DECLARACIÓN COMPLEMENTARIA O SUSTITUTIVA*

Markatu "X" batekin "Aitorpen osagarria" laukia aitorpen hau aurkeztearen helburua hau baldin bada: ekitaldi bereko eta lehenago aurkeztutako aitorpen batean jaso behar ziren baina jaso gabe gelditu ziren eragiketak aitortzea.

*Si la presentación de esta declaración tiene por objeto incluir operaciones que, debiendo haber figurado en otra declaración del mismo ejercicio y período presentada anteriormente, hubieran sido completamente omitidas en la misma, marque con una "X" la casilla "Declaración complementaria".*

Markatu "X" batekin "Ordezko aitorpena" laukia, horrelako aitorpena dela adierazteko, aitorpen hau aurkeztearen helburua hau baldin bada: datu okerrak adierazi ziren lehenagoko aitorpen bat, ekitaldi eta epealdi berekoa, erabat baliogabetzea eta ordeztea.

*Cuando la presentación de esta declaración tenga por objeto anular y sustituir completamente otra declaración anterior del mismo ejercicio y período en la cual se hubieran consignado datos inexactos o erróneos, indique su carácter de declaración sustitutiva marcando con una "X" la casilla correspondiente.*

Aitorpen osagarria / *Declaración complementaria*

Ordezko aitorpena / *Declaración sustitutiva*

## 4 AITORPENAREN LABURPENA / *RESUMEN DECLARACION*

| | |
|---|---|
| Elkarte barruko zenbat eragiketa guztira / *Número total de operadores intracomunitarios* | 01 |
| Elkarte barruko eragiketen zenbatekoa / *Importe de las operaciones intracomunitarias* | 02 |
| Zuzenketak dituzten elkarte barruko eragileen kopurua guztira / *Número total de operadores intracomunitarios con rectificaciones* | 03 |
| Zuzenketen zenbatekoa / *Importe de las rectificaciones* | 04 |

## 5 TALDEKO AURKEZPENA / *PRESENTACIÓN COLECTIVA*

A - EUSKARRIAN JASOTAKO DATUEN LABURPENA (Taldeko aurkezleentzat bakarrik)"

*A - RESUMEN DE DATOS INCLUIDOS EN EL SOPORTE (Sólo para presentadores colectivos)*

| | |
|---|---|
| Zenbat aitortzaile guztira / *Número total de declarantes* | 06 |
| Zerrendatutako pertsona edo entitateen kopurua guztira / *Número total de personas o entidades relacionadas* | 07 |

B - AURKEZLEAREN FROGA-AGIRI ZENBAKIA / *B - NUMERO DE JUSTIFICANTE DEL PRESENTADOR*

(Taldeko aurkezpenean jasotako subjektu pasiboetako bakoitzaren alerako bakarrik)
*(Sólo para el ejemplar de cada uno de los sujetos pasivos incluidos en presentación colectiva)* — 08

## 6 DATA ETA SINADURA / *FECHA Y FIRMA*

DATA / *FECHA:* ..........

SUBJEKTU PASIBOAREN EDO BERE ORDEZKARIAREN SINADURA
*FIRMA DEL SUJETO PASIVO O SU REPRESENTANTE*

AURKEZLEAREN EDO BERE ORDEZKARIAREN SINADURA
*FIRMA DEL PRESENTADOR O SU REPRESENTANTE*

## 7 SARRERA ERREGISTROKO ZIGILUA / *SELLO REGISTRO DE ENTRADA*

RE. 02/142

**P.S.N. / *P.V.P.* 0,06 €**

Administrazioarentzako / interesatuarentzako alea - *Ejemplar para la Administración / para el interesado*

## 349 EREDUAREN JARRAIBIDEAK - LABURPEN ORRIA

### 1.- IDENTIFIKAZIOA

Itsatsi identifikazio etiketa ale bakoitzean, horretarako dagoen lekuan.

### 2.- EKITALDIA, EPEALDIA ETA AURKEZPEN MOTA

a) Ekitaldia: aitorpenari dagokion ekitaldia jarri behar da.

b) Epealdia: hiruhileko naturala izango da, aitorpena urterokoa izan ezean.

c) Aurkezpen mota: markatu "X" batekin lauki egokiak. Lehenengo eta behin, aurkezpena inprimakian ala euskarrian egiten den adierazi behar duzu. Azken kasu honetan, banako ala taldeko euskarrian egiten den adierazi behar duzu. Halaber, aurkezpena taldeko euskarrian eginez gero, laburpen-orrian emandako datuak aurkezleari ala aitorleari dagozkion adierazi beharko duzu.

> Adi: nahitaezkoa izango da 349 eredua ordenagailuz zuzenean irakur daitekeen euskarrian aurkeztea zerrendak 25 eragile-erregistro baino gehiago baditu.

### 3.- AITORPEN OSAGARRIA EDO ORDEZKOA

- Aitorpen osagarria: Markatu "X" batekin "Aitorpen osagarria" laukia aitorpena aurkeztearen helburua hau baldin bada: lehenago aurkeztutako ekitaldi bereko beste aitorpen batean agertu behar ziren eta bertan erabat adierazi gabe geratu ziren eragiketak jasotzea. Aitorpen osagarrian, aurkeztera eraman duten adierazi gabeko eragiketak bakarrik jaso behar dira.

- Ordezko aitorpena: Markatu "X" batekin "Ordezko aitorpena" laukia aitorpena aurkeztearen helburua hau baldin bada: datu okerrak agertu ziren aurreko aitorpen bat, ekitaldi berekoa, erabat baliogabetzea eta ordeztea.

### 4.- AITORPENAREN LABURPENA

Atal honetako laukietan, barruko orrietan (edo euskarrian) jarritako datuen laburpena eman behar da, jarraian bezala banatuta:

**01 laukia** **Elkarte barruko zenbat eragile guztira:** jar ezazu barruko orrietan edo ordenagailuz zuzenean irakur daitekeen euskarrian zerrendatzen diren eta ELKARTE BARRUKO ERAGIKETEN ZERRENDAri dagozkion subjektu pasibo guztien kopurua (Elkarte barruko emate salbuetsienak, eragiketa triangularren esparruan egindako Elkarte barruko eskuraketa salbuetsien ondoren beste estatu batzuetan egindako emateenak nahiz Elkarte barruko zergapeko eskuraketenak direla). Elkarte barruko eragile berbera erregistro bat baino gehiagotan agertzen bada, zerrendaturik agertzen den adina aldiz konputatu behar da.

**02 laukia** **Elkarte barruko eragiketen zenbatekoa:** jar ezazu 01 laukian jasotako eragiketei dagozkien zerga oinarri guztien batura.

**03 laukia** **Zuzenketak dituzten elkarte barruko eragileen kopurua guztira:** jar ezazu barruko orrietan edo ordenagailuz zuzenean irakur daitekeen euskarrian zerrendatzen diren eta AURREKO EPEALDIEN ZUZENKETei dagozkien subjektu pasibo guztien kopurua (Elkarte barruko emateenak, Elkarte barruko eskuraketenak nahiz eragiketa triangularrenak direla). Zuzenketak dituen Elkarte barruko eragile berbera erregistro bat baino gehiagotan agertzen bada, zerrendaturik agertzen den adina aldiz konputatu behar da.

**04 laukia** **Zuzenketen zenbatekoa:** jar ezazu "Zuzendutako zerga oinarria" atalean jasotzen diren eta 03 laukian aipatutako subjektu pasibo guztiei egindako zuzenketei dagozkien zenbateko guztien batura.

### 5.- TALDEKO AURKEZPENA

Taldeko aitorpena egitekotan, aurkezleari dagokion laburpen orri orokorraz gainera, aurkeztutako euskarrian zenbat subjektu pasibo aitorle jasotzen diren, hainbeste laburpen orri erantsi behar dira.

A) Aurkezleari dagokion laburpen orrian betetzeko:

**06 laukia** **Zenbat aitorle guztira:** jar ezazu taldeko euskarri magnetikoan jasotzen diren subjektu pasibo aitorle guztien kopurua.

**07 laukia** **Taldeko euskarrian jasotako pertsona edo entitate guztien kopurua.** Jar ezazu euskarrian (Elkarte barruko eragiketengatik nahiz zuzenketengatik) jasotako eragile guztien kopurua jarri behar da, subjektu pasibo aitorle bakoitzari dagozkionak zehaztu gabe.

B) Taldeko euskarrian jasotzen diren subjektu pasibo aitorleei dagozkien laburpen-orri guztietan betetzeko:

